OGIBIDE ASKO TA ORDUZ KANPORAKO LANAK

Negargarria da langilleak, bere sendia mantentzearrean ogibide askotan sartuak eta ordutik kanporako lanetan ikustea. Elizaren erakutsi garbia, eta Eliz-Batzarrak zabaldua ere, besterik da: langilleak, alegia, bere lan saria, bera ta bere familia bere maillan mantentzeko laingoa bear duala.

Ori dala-ta, «Ecclesia» aldizkariak «Langabeak eta lanpetuegiak» izenburudun idaz-lan bat argitaldu du. Zuzen dator lan ori, ogibide askodun langilleak aitatzeko. Onela ikusten ditugu, gure arteko batzuek, diru-gose gelegiak zirikatuta, lanbide asko artzen dituztenak. Auen erruz, beste batzuek or geldituzen dira enpleorik gabe.

Orra jokaera lotsagarria, kristautasunaren urratzailea, norberekeriz joa eta zoritxarrez gaur sarri ikusten degun. Aldo batetik bestea lanbilla joandako askok, beren lurrean arituko luteke lan-lekua, beste batzuek bi ta iru lanbide berentzat artuko ezpalituzkete. Ori litzake bide egokia, gaur larri ta mixerian bizi diran gizon eta famili asko, bere mailla batean lasaigo bizi ditezen.

Bear-bearrezkoa da, —dio aldizkariak—, lan-sarietan ikusten dan ezberditasuna, berdintasun batera ekarri dezagun. Ezpedi ikusi alako irabazien ondoan, beste ainbeste, naikoa irabazi gabe iteta.

Bata ta bestearen alde undi olek sortzen dute, gaurko gizartearen zuzengabekeri ta ez, bearrik aundienetako bat. Or ditugu zuzentzeko gizartearen gaitzak: auek, familia mantentzeko bi ta iru ogibidetan sartu ta beren burua errenditzen, lanik azkenerako ondo ezin eginda; alek, lan-lekurik gabe, beren lurrak eta jaioterria utzita, munduan barna lan-bila; emengo auek, egundoko lan-sari aberatsa jasotzen lan gutxi truke; ango alek, lancan urratu ta naikoa irabazi jasotzeke...

Orregatik aitatzen zizkigun kontu auek Batikanoko Bigarren Eliz Batzarrak, eta bai garbi adierazi ere, «maiz lan arlotea arraza, maiz kolore bateko jendearentzat gordea, ta beste talde batentzat beti lan-lekurik ederrenak».

E R R I O J A

Euskalerriko jeografi berri bat agertu da egun gutxi dala. I. de Sollube bere egillea. Auñamendi editorialak argitaratu du. Euskaleriko parte balitz bezela jotzen du Erriloja jeografi berri onek.

Au ikusteak poz aundiya eman didala ¿nola ukatu? Erriojan sasoi batean euskeraz egiten zan. Erriojako Ojakastro inguruko arri ta errixkako meriyuak, au da, alguazillak, edo ta beste alderdian esango luteken bezela, erri-mutillak, euskeraz jakiteko obligazioa, Elizak santutzak daukan Kastillako errege Fernando Irugarrenak ipiñi zuan.

Erriojan euskeraz egiten zan orduan, eta bertako erretako alguazillak euskera jakitera beartu zituan erregeak.

Erriojako apelliduak Arabakoaren antzekoak ziran danak. Konpuestoak. Gurso-izena apellidu antzera euskerazkoaren aurretik daramaklen oletakoa.

Araban bi apellidu olek damazkite gelenak. Erriojan bigarren apellidua, euskerazkoa, galdu egin dute zoritxarrez. Baño dokumentuetan zear billatzen degunian laixster azaltzen da euskal sustrai ori.

Bañan tokí izenak asko ta asko euskaldunak dira oraindik Erriojan. Beste askok berriz euskal antza galdu badute era, jatorria gurea dala ezin ukatu.

Joandaneko batian Logroñoko ablazio kanpoaren izenatzaz ari giñan itz egiten. Rekajo da kanpo ablazio onen izena. Rekajo au Errekatxo dala ez da zailla asmatzen.

Orain dala illabete batzuk Don Jose Bautista Merino Urrutia jaunak liburu bat publikatu zuan Logroño-ko Diputazioa dala bitarteko. **El río Oja y su comarca** de liburu apain onen tituloa.

Euskaldun batentzat liburu benetan atsegiña. Euskal kutsua daukan liburua. Zenbat eta zenbat toki Erriojan euskal izenakin. Artikulo au idazten ari naizenean, aurrean daukat Merino Urutia-ren liburua.

Iriki det. Ogei-ogeitabatgarren pajinan. Ona emen azaltzen zaizkidan izenak. Ayabarrena, Ezcaray —au da, Aitzgaray— Usaya, Azarrulla, Ermua...

Edozein tokitatik iriklizen detala Merino Urrutia-ren liburua, berebiziko agerketak egingo ditut. Sologaistoa, Balerdi, Aitzarra, Urdanta... Urdanta au Urdaneta dala garbi dago.

Gutxienez amasei gizadiraño euskeraz egiten zan Erriojan. Errioja Euskalerri izan zan.

Euskera galdu badute ere erriojaterrak gure-guresk ditugu.

Gure lurralde maltearen burutakizun edo konzeptoa zabaldu bearrean gera oraintxe.

Euskalerriko jeografian Errioja-ri toki egin diogu. Bazan ordua. Errioja ezik ba dira oraindik beste zenbait paraje euskal kutsu jarioa dutenak.

José de Artetxe

Zezenkeriak eta Xiboleteak

Z. A.-n berri agertutako «Betiko zezena toreatzen» artikulua ez zait batere gustatu. Herri libro batean gaudenez gero —mundu guziak dakianez— nere iritzia ere azaldu nahi dut, artikulu horren kontra jokatzen.

Zezen bakar bat zezenketatzeko bainbeste torero juntatu, ez zan beharrik. Adiskideok, zuen paperak manifiesto itxura du, ospe ta ots horrekin agertzen duzutelako, amar personak firmatuta.

Nahi-ta-nahiez manifiestotzat hartu behar dugu. Baina manifiesto bezala, oso munta gutxikoa iduri zait, egia esateko. Oso idela ikusiak eta mastrakatuak erabiltzen dituzute hor, eta betiko estabaidak berriz ere jotzen dituzute, batere protxurik gabe. Atzerontz egiten duzute, ez aurrerontz.

Horren seguru zaudetenok, utzi itzazute ilak, beren ilak eortzen

Obra berria sortu gura duzute zuek, arrazoiz. Baina zuen manifiestoan, biderik errezenari jarraitzen diozute, ez onenari.

Zuen burua jenerazio berri batentzat batalatzen duzute lako, 1964-koa, alegia, lan hori baino gauza oberik hartzeko ba genuen derecho, lehenengo agertze hontan.

Zuen poemak, zuen entsaioak, zuen idela berriak, egiazko berriak, desiratzen nago. Ez berriz, umore txarrezko kritikak eta esabruptoak.

Barka idazute, poeta ta idazle maiteok, gogor xamar jokatzen baldin badut. Baina zuen kontradizioko artikulu-manifiestoak kezka handia eman dit.

Bera irakurtzen nintzalarik, Unamunon konparazio bat, xiboleteen konparazioa, alegia, burutatu zait.

Jujeen liburutik atera zuen berak, Israeleko gerlaen pasadizo famatu hau. Efraim eta Gallaad tribuen arteko gudu bat izan zan, eta azkenean Gallaadekoak geiditu ziran garaile. Efraindarrak, berriz, desarmatuak, eta igesi egin gabe, gallaadetarren eskuetan milaka erori ziran. Bainan gallaadetarrak eta efraimtarrak oso berdinak ziran, eta zaila zan, guda nahaslaren erdian, batzuek ta besteak berdintzea. Hori dalata, nahas-mahas hartan, gallaadetar batek, efraimtarra zalako gizon desarmatu baten aurrean arkitzen zanean, galdera hau egiten zioten: «Hi, efraimtarra ahal haiz?» Eta besteak «ezetz» erantzun baldin bazion, agindu hau ematen zion: «Esak xibolet».

Zeren, efraimtarrak «xibolet» hitz hau ezina bait zuten ongi pronunziatzea, eta beti «sibolet» esan ohi zuten, xibolet-en lekuan.

Berar, beste gizarajoak, «sibolet» esaten baldin bazuen, zintzurra egiten zioten berehala gallaadetarrek.

Zenbat eta zenbat xibolet, gure artean ere! H letrakin, edo gabe, idazten duzula? Xibolet! Lizardi lirikako poesiak aisegiten zaizkizula? Xibolet! Erosotasunaren maitasuna duzula? Xibolet!

Nahiko xiboletekeria ba dugu gure artean, idazle eta poeta andrejaunok! Ez insistitu, faborez.

CARLOS SANTAMARIA'K

BUSCA ISUSI'RI HITZ BATZUEK, EIBAR'KO EUSKERA JATORRARI BURUZ

Nere adiskide Jose Maria Busca Isusi, otsailaren 28-ko **Norte expres**-ean Eibarko euskerari buruz jardun zan. Egien eta fantasien artean, ba zekorzkin zenbait uste oker ere. Ez dut zalantzarik borondaterik hoberenakin egin zuela, baina euskeraren barnean bizi ez direnegan arkitzen diren hutsak dira. Hutsak, kanpotik barnea maiz datorzkigun hutsak. Beraz, ohar batzuek egin nahi dizkiot. Jakin dezan euskaldun batea ustea, bereziki eibartar batena.

Baina aldez aurretik esan dezadan eibartarrok oso ondo jartzen gaituela, behar bada merezi dugun baino hobetoago.

Eibartarrok, erderakaderi begiratu gabe ari geralako oraindik euskaldun jarraitzen dugula dio. Baina hogeitahmar urtetik beherakorik euskaldun gutxi da Eibarren. Herri hizkuntzaren mordollotasuna esta Eibarko euskerak iraun ahal izateko errazoia. Euskerazko eskolarik ezak eeta gauza askok, baina batez ere eskolarik ezak. Etxean egin behar dala? Bai. Baina ez etxean bakarrik.

Busca Isusi-k, ageri danez, Toribio Etxebarriaren **Lexicón del euskera dialectal de Eibar** izan du oinharri. Behar bada bere emazte eibartarra ere laguntzaile izango zuen, noski. Bainan hala ere bere uste batzuei zuzenketak egin nahi dizkiet. Berezki haueri:

Lur sagarra, egia da Eibarren ez dala esaten, baina mugazandiko euskaldunek aintzinatik horrela deitzen diote. Eta, kontu honetan, Busca-k, euskera mordolloari errazoia dik hartutako erdaikeri horren eman nahi horretan, frantsezagankontra jartzen da, hitz hori mugazandiko euskaldunentzat hitz arrunta izanarren. Beraz, hau ezta inork asmatua, terrian horreia sartua eta zabaldua balzik.

Esperantza, oso zaharra da euskeran, berak besterik uste badu ere. Busca Isusi-ren iritzia **Itxaropena** behar zuen. Konturatzeke, nunbait, hemen bere teoriaren aurka ari dela. **Itxaro, itxaron, (itxain, Eibarren)**, erderazko **esperar** esateko erabiltzen da, batez ere Bizkaia aldean, baina erderazko **esperanza** bezela inoiz erabili gabe. Horregatik, **esperantza** da jatorra et ez urte batzuek dala asmatutako **Itxaropena**. Hau ra, euskal idazle zaharrak, naiz euskaldun zaharrak, inoiz ez zuten erabili **esperantza** balzik.

Estratia, Busca-rentzat, «barbarismo» bat da, mordollokeri bat. Baldin hori «barbarismo» bada, erderetan ez da hitzik libratzen «barbarismo» ez izatetik eta euskeran bertan ere gutxi, oso gutxi. Zein hizkuntzak ditu hitz guztiak bereak? Eta, euskeran, hitz batek bere iturburua euskeran bertan ez izatea «barbarismoa» al da? Ez! Hitzak, alde guztietan prestamoak dira, hi zak ordez elkarri emanak dira sekula-sekudakoz. Hau, bai gurean eta bai guretik kanpo. Hitzak, jatortasuna zahartasunez hartzen dute, eta **estrata**-ren jatortasuna duda gabekoa da, latinetik datorkigunarren, gure inguruko erderak ez dute erabiltzen. Zer agiri hobea bere zahartasuna adierazteko?

Guardasola, T. Etxeberriak bere hiztegi aipatu horretan dionez, **euritrakua** esan behar litzake, baina Eibarren ere, beste tkietan bezala eta hau bai dala «barbarismoa», batez ere gaztelerarekin begiratzen badugu, **guardasola** deitzen diogu. Maiz, zer penagarria den erderaz ere jakitea, zeren honek erakusten bai digu zer dan txarto gure barnean, eta ez bageneki, edozein erdeldun bezela lasai ibiliko ginake mila «barbarismo» erabiliaz, latina edo griegoa ez dakitelako, eta arabea ere ez, berak egunero erabiltzen dituzten mila hitz beste zentzu batekoak dirala jakiteko.

Ganbelua, eta ez **banbelua** (hau uste dut imprimatzallearen hutsa izanen dela, zeren T. Etxebarria gandik hartu duenez, honek **ganbelua** jartzen bai du). Busca Isusi-k Eibarko hitz jatorra balitz bezala aipatzen du eta erderazko **gamberro** hortik letorkeala -dio. Kontuz! Zerca Etxebarriak berak dio: **Ganbelu**. Camello, fig. Alto, desgarbado.» Bigarrena irudi-bidez erabiltzen da. Baina hitz hau ezta Eibarren bakarrik erabiltzen dena, baizik hitz arrunta da eta gainera aintzinakoa. Larramendik bere hiztegian: «Camello, **gamelu**. Lat. Camelarius.», dakar.

Motxailla, ijitoari deitzen zaio Eibar eta inguruetan, baina ez dut uste Golherriko «**motxoliak**»-rekin zer ikusirik duenik (**motxoliak**, Busberak honela jartzen du), **poneys cimarronea-ekin**. Hauek, **mozal**-ak, zaldi gaztetxoak dira. Eta Eibarko **motxailiak** (motzaileak), erderazko **esquilador** bezala, ijitoak garai batean lan hau ogibidez egitenzutelako.

Astelena, bera ere ez da eibartarrena bakarrik. Asteko egunen izenetarik, batasuna egina duguna, hain zuzen **astelena** da, Euskal-Herri guztian berdin esaten dana. Irudi-bidezko ajeari ere hori esatea, oso zabal ezagutzen da.

Ikusita dago, Jose Mari, usteak erdiak baino gehiago ustelak irten zaizula. Baina bar zazu tkantxeta gisa. Zeren danok dakigu periodikuak betetzeko ere zerbait behar dala.

Eibarko herri-euskerak, herri hizkuntza guziak bezala, ez du ez dohain berezirik. Eginaren indarrak iraunerazi zion gainerako herri nagusietan baino zerbait gehiago. Gaur, gehiago egiten duten beste herri batzuek daramate tantoa.

Juan San Martin

NORK KUKURRUKU!!!!!!!

OLLARRAK

OLLOTEGIAN?

FAGOR

...Ez. FAGOR,ek

sukaldian

AINHOA

JANZKI EGINAK

Ondo jantzi nai al zera?
Zoaz «Ainhoa» dendara.
Janzki apañak
Ondo egiñak.

S. Roke Kaleko 12'an.
DEBA'N

Zeruko Argia

Zuzendaria:
ANTONIO ITURRIA ASTIAZARAN
Naparroko-Kantauriko ta Aragoiko Kaputxinoak argitaratua
(Carlos III, 22. Pamplona)

DONOSTIA'n:
Oquendo, 22: Telf. 26666

ARPIDE SARIA:
Urtekoa ... ... 190 Pta.
Atzerrian ... ... 265 »

Aldez artu nai bada, galdetu.

AÉATE - OPARIAK

JATONTZI TA MAI - TRESNAK

Victor Pradera, 2
Urrutizkiña: 25700

DONOSTIA

BAR - RESTAURANT

AURRERA

DONOSTIAN ZURE JATETXE BAKARRA

Urbieta kaleko 12'an
Urrut.: 12578 - 11528

DONOSTIAN